

LINGUA NAVARRORUM, Europako hizkuntza jatorren urtean

Europako Batasunaren Batzordeak "Hizkuntza Urtea" izendatu du 2001garren hau, Hizkuntza aniztasuna Europako ondarearen aberastasunik funtsezkoenetako bat dela eta etorkizunean ere izan behar duela adierazi nahian.

Giza eskubideen inguruan (2000) liburuaren 73-83 orrialdeetan eman nuen "*Lingua Navarrorum-en zoritxarra edo giza eskubiderik eza*" zeritzan kapitulu bat, bereziki aintzinatik izan dituen eragozpenak azalduz. Eta gaur oraindik bide horretatik jarraitzen du Nafar Gobernuak bere jokabidez erakusten digunez.

Euskarazko iragarkiak kentzea erabaki du Nafar Gobernuak, arrotzen hizkuntza balitz bezala, eta horren ondorioz bertako Gobernu buru den Miguel Sanz jaunak esan dituenak nahasmendurik aski sortu dute. Izan ere, gaur egungo politikariek, aholkulari egokiz hornitzen ez direnez, argi dago zenbait gaitaz ahoa irekitzen duten bakoitzean zer nolako astakeriak esaten dituzten. Hala agertzen zaigu Sanz jauna ere iragan otsailaren 4an *El País* egunkariaren "País Vasco" saileko 4. orrialdean agertu zuenaren arabera.

Uste dut, herrialde batek historia egokirik baldin

badu, Nafarroa dela horietako bat. Zeren ikus eta irakur besterik ez dugu Joseps de Moret-en *Annales del Reyno de Navarra* (1764). Lehen liburukiko, I. kapituluaren III. atalean, 4-5. orrialdeetan irakur genezake honako hau: "Traen también por argumento su Lengua nativa Vasconica, que con ninguna otra de las Gentes, que en las Españas han entrado en numero grande, y que pudiesse immutar el Idioma natural, tiene comercio, ò afinidad alguna. La qual en lo antiguo fue comun de todos los pueblos Vascones, como el mismo nombre de *Vascuence* lo dice: y el Rey Don Sancho el Sabio la llamó *Lengua de los Navarros*".

Gainera, lehen liburuki beraren XIII. zatian, 758-759. orrialdeetan, agertzen zaigu Nafar Erregetza 1053. urtean Bizkaialdearen jabe zela. Santxo Jakitun hura izan zen 1180. urtean Gipuzkoan Donostia hiriburua sortu zuena eta 1181ean Arabako Gasteiz "Victoria" izenez. Horrez gainera ikus beste foru emaitza batzuk Tomás Urzainki eta Juan Mari Olaizolaren *La Navarra marítima* (1998) liburuaren 80-84. orrialdeetan.

Hala ere, horrek ez du esan nahi Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Nafarroa zirenik, baizik Nafarroako erregetzarekin zeudela. Gaztelaniako errege



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdindegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- *Urdai azpikoak*
- *Hestekiak*
- *Gaztak*
- *Foies*
- *Edariak*

San Pedro katea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA

Alfonso VIII.a, eskualde horietaz jabetzeak aldatu zituen gauzak. Hala ere, oroï Pasaia San Joan, Lezo, Erretereria, Oiartzun, Hondarribia eta Irun Nafarroa zirela eta Alfonso VIII.ak Nafar erregetzari itsasorako irteera kentzearen jabetu zela hiri horietaz. Gertakizun horietaz publikatu nuen "Gaztelako erregeen menperatze hura eta XVI. Mendeko gudua" zeritzan artikulua *Hondarribia* aldizkaria 74. zenbakian (1997) argitasun zehatzak emanaz. Eta hontaz ikus besterik ez dugu Fausto Arozenaren *Guipúzcoa en la Historia* (1964) liburuaren VIII. kapitulua eta ares-tian aipaturiko Tomás Urzainki eta Juan María Olaizolaren *La Navarra marítima* (1998), III. kapituloko 3 eta 4. par-teetan 50-62 orrialdeak.


Horrez gainera, oroï Nafarroako errege García Sánchez V. "Naxerakoak", 1051.ean eman zuela Bizkaiko monastegieri Privilegio berezia eta santxo VI.a nafar errege "Jakitun" hark Durangoko nekazariei foruak.

Jose Yanguas y Mirandak ordean, *Diccionarios de los Fueros del Reino de Navarra* (1828) liburuaren hitzaurrearen II eta III. Orrialdeetan, beste honako hau zioen: "De las indagaciones hechas a este efecto resulta, que los Navarros, conocidos antiguamente con el nombre de Vascones vivían libres e independientes cuando Roma, y Cartago se disputaban en España el imperio del mundo".

Ahoa ireki baino lehen, era hortako lekukotasunak gogoan izan behar lituzkete.

Oraindik bada *Lingua Navarrorum* zalantzan jartzen duenik ere, euskararen ordeztako bertako erromantze zaharra zela ziurtatunahirik. Baina, J. Moret historiagile harek ez zuen zalantzarik.

Argiago jarri nahi duenak ikus beza José Goñi Gaztambidek IX-XIII. mendeetako ageri bildumaz argitara eman zuen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, 829-1243 (1997), 305. agiriari buruz ari den har-



EROSLE
CHARTER SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
 Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA

TRUCK DISCOTECA
 HONDARRIBIA
 Foru Kalea, Z/G

Pub
Kaizar
 Almirante Alonso Kalea, 12

tan, 269. orrialdean, latinez irakur dezakegu honako hau:

*"Erit autem talis differentia inter Orti Lehoariz eta Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoariz faciet ut lingua Nauarrorum dicatur **umanaizter** et Açeari Ume faciet **buruçagui**, quem voluerit".*

Lekukoan deiturez gainera hor ditugu garbi asko beraien ogibidezko ofizioak. Eta agirion ondotik ulertu ezin duenak, euskaraz ikas edo dakienaren bidez jabetu zer esan nahi duen.

Horiek ezaguturik, harrigarria iruditzen zaigu Nafarroan bideetatik eta administraritzako bulegoetatik euskarazko iragarkiak kentzea. Hori, beraien jatorrien aurka egotea baira. Eta hala izanik, hori baino lehen, hobeago iruditzen zait nafar agintariak ezer baino lehenago beraien deiturak (apellidoak) aldatzea, herri bati bere jatorria ukatu baino lehen.

Baira ere, jakin bezate, gaztelako errege Fernando Katolikoaren aginduz Albako dukeak 1512an Nafarroa hartuz, hilketak eta derritasun indarrez erabiliz, eta Gaztelaren menpekotasunean jarri zuenetik, Albret errege-erreginak koroarik gabe utzi zituztela. Horren lekukotasun zehatzak eskaini zizkigun Nafarroako artxibaria zen José Yanguas y Mirandak *Historia de la conquista del Reyno de Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católi-*

co (Iruñea, 1843). Nafarroako errege-erreginak, Pirinio mendien harandiko babesaz baliatuz, seigarren merindadea bakarrik gelditu zitzairen; hau da, Nafarroa Beherea.

Ordurarte ez zen gaztelararik Nafarroan eta XVI. mendearen azkenaldira arte euskarak oraindik Erriberako mugetara arte iraun izan zuen Iruñeko Apezpikutegiaren 1587. urteko ageriak erakusten duteenez. Ikus eta irakur Manuel Lekuona zenak aurkitu eta argitara eman zuen agiri hura, "El euskera en Navarra a fines del s. XVI", RIEV, 1933, 365-374. orrialdeetan.

Euskarak geroztik ezagutu dituen eragozpenak ekarri zizkigun atzerapen handiak. Baina, hala eta guztiz ere, Nafarroako zenbait herrialdeetan oraindik bizi da bertako hizkuntza jatorra.

Eta 2001. urte hau Europako Batasunak bertako hizkuntzen urtetzat izendatua duenez, guk ezin uka Europaren jatortasuneko den euskara honi.

JUAN SAN MARTIN



ENARA, C.B.
EXPERTOS
INMOBILIARIOS



VITALICIO
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 4 behea Tel. 943 64 39 72
20280 HONDARRIBIA Tel. y Fax 943 64 54 38

Amuitz
ASESORIA
Xabier Tife Susperregi

**GESTORIA
CORREDOR DE SEGUROS
INMOBILIARIA**

Arrantzale Auzoa 10 bajo
20280 - HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 71 73
Fax: 943 64 60 82